

TXAKUR HEROIAK!

Egunero bezala, txakur heroiak kaletik zeuden, baina zergatik izen hori? Egunero kasu edo egoera arriskutsuren bat konpontzen zutelako.

Paseatzen zeuden eta bat batean batek esan zuen:

- Ez duzue sua usaina nabaritzen?
- Bai hori da bai!
- Goazen ikustera!- esan zuen beste batek.

Berehala haien nagusiarengana joan ziren horren berri ematera. Orduan, denak elkar sua itzaltzera joan ziren. Hasieran zailtasunak izan zituzten pisu asko zeudelako, baina haien ahotik ura botaz , itzaltzen joan ziren. Bukatzean, jendea harrituta geratu zen hori ikusteaz eta oihuka hasi ziren:

- Gora txakur heroiak!!!

Eta zoriontsu izan ziren betiko.